

abertzaletasunak badu toki eta errespetu gehiago gizartean. Ze garapen ikusten duzu?

Hori da hausnarketa baterako gai! Hitz batez errango nuke Enbatak egin zuela ahal zen dena, eta jarraitu dutenek igual; hori ez du aipatzeak ere merezi. Aipatu behar dena da frantses sistemak egunero, gauero, jartzen digun zerrikeria. Esaterako, auzapezek aspaldi eskatu dute euskararen duintasuna eta Frantziak aztertuko duela dio...


Eusko Alkartasuna alderdiko Ipar Euskal Herriko idazkari nagusi izana zara. Nola ikusten duzu EH Bai mugimendua?

Beti alde izan naiz, ez da beste aterabiderik ezkerreko abertzale mugimendu zabalarentzat. Abertzaleek behar dute elkarretaratu. Katalunian obratu dute zerbait, eta ni oso alde naiz, eta heldu den kongresuan Bilbon babestuko dugu EH Bildurekin bat egitea. Gero Bilduren barruan nola egin behar den, ez dakit, ni ez naiz politikaria. Hori bai, ez da irabazia, aurrean badakite anitz gauza.

Euskal Museoa ere aritu zara lanean, zer esperientzia ateratzen duzu hortik?

Bertan 31 urtez aritu izan naiz lanean. Oroitzapen ona dut. Kristoren lanak egin genituen museoa antolatzeke: nagusi zorrotza nuen, baina ona, zuzena, Jean Haritschelhar, asko zekien eta asko ikasi nuen berarekin. Gero egin nituen hamar urte Olivier Ribetonekin, horrela eta hala. Azken urteetan jarri ninduten armairuan, zeren eta hauteskunde batzuetan hautagai nintzen eta euskal departamentuaren alde egin nuen; Baionako auzapezak ez zuen dei egiten, eta gure bozarekin irabazi zuten besteek, sozialistek. Bi egunen buruan museoko nagusiak erran zidan Herriko Etxeak erraten zuela handik ezin nuela hitz egin medioekin, eta jarri ninduten zoko batean. Gogorra egiten da, baina horrela aguantatu nuen hiru-lau urte. Orain bada hamar urte erretretan naizela.

Zuzendari nahi nuen izan, baina ez nuen lortu. Donibane



IBILBIDEA Nafarroa

Behereko Landibarre herrian sortu zen, 1941. urtean. Euskarako lizentzia eta etnografia doktoretza egin zituen. Baionako Euskal Museoa aritu zen 31 urtez. Euskaltzain urgazlea eta Eusko Ikaskuntzako kidea da. Seaska, Gure Irratia, Elkar (Baionan) edo Euskal Herriko Artistak elkartearen sorreran parte hartu zuen. Dozenaka kantu idatzi ditu, horietariko asko Pantxoa eta Peiok ezagun eginak.

Lohizuneko Aberri Eguna eta gero auzitan izan nintzen beste bostekin. "Eusko Gudariak" kantatu eta kanporatuak izan ginen, eta auzi horren ondorio izan genituen zigorrak, nik hogeigun kartzela. Orduan auzapezak idatzi zion nire nagusiari errateko horrelakoak ez zirela onargarriak Baionako hiriarentzat lan egiten duen batentzat, eta horrela segitzen banuen nire karrera bukatuko zela.

Sartu zinelarik, nola zen?

Altxor gun bat, baina gauzak metatuak ziren, ez zen gauza guztientzat espaziorik. Baziren areto batzuk izugarri politak, adibidez pilotarena. Jendeek, bereziki hurrek, salara heltzean «uau!» egiten zuten. Orain pasatzean ez dute fitsik erraten. Inork ez du kritikarik egin orain arte, badute beldurra nik eginen dudala.

Kantua grinaz kultibatua

Maite Idirin
Kantaria

Emandako fruituengatik epaitzen badugu, Manex Pagola euskarak eta euskal kulturak lehiatsuki liluratu zuten pertsonaia emankorra dugu. Publikoarekin lotzeko lehen saioan, 1958an, «Euskal gudari» antzerki pieza eta «Zikilimarro» haurrentzako abestia idatzi zituen. Bi produkzio genero hauek grina-tsuki kultibatuko ditu bizi osoan, nahiz kantua arras nagusitu denborarekin. Baina Manex hurbiletik ezagutzen duen orok, badaki «antzerkilariaren» keinuak hor daudela kantuaren orduan ere.

1978an argitaratutako «Biba turismoa!» besterik ez diogu ezagutzen antzerki alorrean. Hala ere, «Zazpiri bai» eta «Ortiziken» ikuskizunetan antzerkiaren parte garrantzizkoa da. Talde lanak izan baziren ere, ikuskizunaren antzeztasunean ekarpen garrantzitsua ukan zuen.

Harengan kantuarekin euskal gizarte sozialki eraldatzeko grina nagusitu zenean, adierazia zuen tradiziozko euskal kantuak, bertsoak eta herri-antzerkiak amultsuki barneratuak zituela. Bazekien musika eta hizkuntza elkar elikatzen duten bi sistema direla. Baita musikak eta prosodiak sare berezia eho ohi dutela. Baita doinuaren nota luzeak bat etorri behar direla bertsoaren etenekin ere. Baina, ez da tradiziozkoaren kultibadore hutsa. Euskal gizartearen berritzea euskal kantuaz erdietsi nahi izan du. Sortu dituen testu poetikoetan bezala, melodikoetan tradizioa eta modernitatea gurutzaturik dabilta. Hala ere, modernitate jakin batera mugatzen da haren mundua. Laborantza eta artzaintza erasota ageri diren euskal gizarte ardatzean grina abertzale-sozialez eraikitako irudiak eta metaforak dira nagusi. Industria eta postindustrialaren bere gogo eta munduan egonik ere, ez dira isuri haren kantutegira. •